



Goibek kale

eduzeko aldizkaria apirila 30ek.

Goibek



Kuadrilla
girua
basurdatan

F. IRIBAR
SALBADOR 9-1ª EZK.

Maderas Gallastegi, s. a.

MENDI USTIAKETA ETA ZERRA MEKANIKOA

Azkarreta auzoa 48230 Elorrio (BIZKAIA)

Tel.: 94 6820568 eta Faxes: 94 6583061.

Lotsagarria iruditzen zait

Bai, izenburu bat aukeratu behar eta egokiena hauxe iruditu zait, zeren lotsagarria iruditzen zait, Bergaran gabiltzan ikasle batzuei ematen diguten "tratu txarra".

Tratu txarra esaten dudanean ez dezala inork gaizki hartu, tiroak hizkuntza aldetik doaz eta. Lotsagarria da, maixua euskaldun berria izanda nola ematen dituen eskolak erdaraz, eta ez da euskaraz ez dakielako ematen.

Lotsagarria da baita ere, iaz hemezortzi lagun klase berean egon eta bakararengatik eskola guztiak erderaz ematea. Aurten berriro berdin.

Nik, nire eskubideak eta nire eskolak euskaraz nahi ditudan ikasle honek, euskaraz ikastea eskatu nuenean, erderaz erantzun zidan maixuak "no vengas a tocar la moral" erantzunez. Ez al da lotsagarria "D" ereduan gabiltzan ikasleok, horrelako irainak jasan behar izatea?

Benetan, honek autokritika gogorra merezi du.

Eskolak euskaraz nahi dituen ikasle bat

Aurreko aleko erreportajian gaiñian

Azken alian urtendako artikulu baten inguruan jentia, batzuk behintzat, berotu samar ibili ete dian da guk jakindakua. Lehenengo ta behin, argi ta garbi esan bihar dau **Goibekokalek**, ez zala izan hori asmua. Jakina da, aldizkari batetik gauzak aurretik ikusi bihar dira, baina, itxuria danez, ez zan holan gertau: alde batetik, ez genkixen girua hain pipartuta zeguanik; bestetik, Ozkarbixan hogetahamaika hurrena izan, ta bertan egindako ekintzak herrixai begira kontau besteik ez dogu egitten. Gure kulparik haundixena izan da Ozkarbiko lehendakarixa alkarrizketatu ta gero, beste hainbestekua ez egittia basarritxarrekin. Hutsa haunditxua izan leike euan girua ikusitta, ta onartu egitten dogu.

Hala ta be, ezin ukatu, aldizkari-xa herri guztiari zabaldua dagonik. Aurreko hiru urtiak ikusi besterik ez dago. Goibekokalek ez dau inon presioa onartu, ezta onartuko. Ez jarri orduan zalantzan **Goibekokalen** independente izatia.

Hau hola izanda, ez dogu aittatu barik lagako aldizkariko atiak zabalik dakazela edozeñek norbere iritzixak ta esan biharreko danak agertzeko. Sekula ez jako inoi hori ukatu. **Goibekokale** elgetar guztion aldizkarixa da, horrekin gurariorrekin sortu zan.

Hau kontuau argittu besterik ez dogu gura, ez da gure intenziñua edur pelota txiki batetik haundixaua egittea. Orduan ba, ondo egiddakuak goguan euki ta gura barik egindakuak ahaztu.

Erredakzio kontseiluan izenian
Iban Arantzabal Arrieta

AENOR

ER

Empresa
Registrada

ER-714/2/96

Estampaciones Elgeta

Estanpaketa orokorra,
Prensa automatizatuak 250 tonaraino,
Serie handietan espezializatua.



Salbador, 32. Tel eta Faxes: 76 82



Abertzale naizen aldetik

Abertzale naizen aldetik, aurtengo hauteskundeetako emaitzen balorazioa egiterako orduan betiko egoerarekin egiten dut topo.

Oraingo hontan hauteskundeak, beste batzutan ez bezala, ezaugarri berri batzuk izan dituela esan genezake, hauen artean nabarmentzekoa, ETA k iragarritako su etena.

Hala ere, emaitzetan garbi ikusten da alderdi espainistak daukaten indarra, ezkerria ez denean eskubiak; Hona hemen gure herrian bizi diren batzuren borondatea.

Euskal Herriaren interesen defentsa oso modu ezberdinean egingo dute alderdi abertzale eta ez abertzaleek, eta bigarren hauen presentziak eta indar irabazleak ni neu asko kezkatzen nau.

Aipatutakoa kontutan izanik, nik euskal herritar moduan luzatzen dudana galdera hau da: Ez al daukagu eta ez al dugu inoiz edukituko geuk, hots, abertzaleok, geure herriarendako ahalik eta burujabetasun gehiagorik egoki deritzogun politika finkatzeko eskubiderik?

Ez dakit formula zein den baina garbi daukat ez dudala nahi Espainiako estatua marko moduan hartuta egindako Euskal Herriarendako politikarik.

Ainhoa Larrañaga



Eskenategi Birtualak


Emaitzak: EAJ berdin mantentzen da; EH-k honek bai irabazi dituela botuak. EA-ak, nola? UA-k bi ordezkari ditu eta EB-ak bost aldiz botu gehiagorekin UA-k adina, baina noski 94-ko datuekin gonbaratuz eta errealitate sozialaren aldaketan oinarrituz datu hauek interpretatzeko formula berri bat erabiliko dugu. Hau guztia argi eta garbi ikusiko duzue honoko grafiko honetan, hiru dimentsiotako gure plato zoragarri honetan...".

Ezer ulertzerik bai? Nik ez behintzat. Hango eta hemengo grafikoak, telebista platoak gira eta buelta, soziologoaren iritziak, kazetarien komentarioak, bateko eta besteko hotel eta zentruetara zuzeneko koneksioak, lehendakartzako informazio sistema aurreratua internet eta intranet bidez huneoro informazioa eskaintzen... Eta guztia borobiltzeko ordezkari politikoen balorazioak. Ezpahirik gabe lehertuta amaitu nuen gau hori. Azkenean emaitzak norberak bere gustora interpretatu eta ohera.

Eskenategi birtualak eta sasi ordezkari piloak, "zentroko" "politiko" "euskaldun" horrek esaten duen moduan "hau espejismo bat da". Baina herritarren nahia erreala, benetazkoa da. Herritarren gurak eta desioak hauteskunde hantetan inoiz baino gehiago bizi izan dira eta gure agintariei eskenategi birtualak alde batera utzi eta behingoz gure nahiei bidea erraztea eskatzen diegu. Erraztea baino ez, gure iritziak aski ezagunak dituztelako.

Desio horrekin bozkatu nuen aurreko aldi guztietan ere, baina oraindano ez dut zortetik izan. Agian botuarekin batera nahi bat idatzi beharko litzateke. Dena den orduan ere, "zentroko" "politiko" "euskaldun" horiek "espejismoak" baino ez litzukete ikusiko. Antzezpen lanak utzi eta entzun.

Ana Gillegi Etxebarria



Eusko Jaureritzako
Kultura sailak diruz
lagundutako aldirikari



Aldizkari honetako
Elgetako Udalaren
laguntza jaso du



Aldizkari honen
argitaratzailea

GOJBEKOKALE

Argitaratzailea: Elgetako Gazte Asanblada. Gudarien Bidea 2. Elgeta 20690.
Zuzendaria: Iban Arantzabal. **Erredakzio kontseilua:** Iban Arantzabal, Haritz Gallastegi, Ana Gillegi, Oxel Erostarbe eta Bittor Gallastegi. **Erredaktoreak:** Igor eta Gorka Arizmendiarieta, Olaia Jimenez, Maite Mandaluniz eta Ainara Iribar.
Maketazioa: Bittor Gallastegi. **Administrazioa:** Susana Jimenez eta Esti Retolatza.
Publizistak: Jone Oianguren eta Izaro Arrazola. (Tel: 943789085). **Banaketa:** Ikastola. Tirada: 650 ale. **Inprimategia:** GERTU koop. (Zubillaga Oñati).
Copyright-a: EGA. **Lege-Gordailua:** SS-475/95. **ISSN:** 1135-3538.
E-mail: goibeko@topagunea.jalgi.com

Goibekokalek ez du bere gain hartzen, aldirikarian adierazitako esanen eta iritziaren erantzunkizunik.


“Itzaropenerako hauteskunderen” emaitzak

Urriaren 25eko hauteskundetan %10ean igo da partaidetza

Juan Jose Ibarretzek izango du Jose Antonio Ardantza ordezkatu duen gobernu eratzeko ardura. Alderdi abertzaleek botoen gehiengo eskuratu dute, 105.000 boto gehiago lortu baitituzte. Elgetan partaidetza igo egin da, abstentzioa %36,08 izatetik %21,46 izatera jeitsi baita.

Akusazioz eta deklarazioz betetako kanpainari Euskal Autonomi Erkidegoko herritarrek eman diote erantzuna. Datu azpimarragarriena partaidetza izan da: 1.994an partaidetza %59,7a izan bazen, urriak 25ean, %70,7 izan da. Honetaz gain, alderdi abertzale eta ez abertzaleen arteko proportzioak berdin jarraitzen duela esan behar, 41 eserleku lehenengoek eta 34 bigarrenek.

Alderdi politikoari dagokionez PPK eta EHk eman dute gorakada, eta IU eta UAK izan dute beherakada. EAJk eserleku bat eta EAK bi galdu dituzte parlamentuan. PSE-EEK bi eserleku irabazi ditu. Datu hauek alboan daukazuen grafikoetan ikus daitezke.



Elgetako emaitzak 94ko hauteskunderekin konparatuz.

Lizarra-Garaziko alderdiak garaile


EAJ, EH, EA eta IUK, Lizarra-Garaziko ituna sinatu zuten alderdi politikoek, botoen %60,74 lortu zuten. Itun honek eta ETAK iragarritako suetenak izan du zer esanik hauteskunde aurreko asteetan. Orain itunean sinatutakoa aurrera eramaten nahiko lan izango dute alderdiek.

Elgetan ere partehartze handia

Abstentzioa %21,46ra jeitsi da Elgetan. EAJ izan

da boto gehien jaso dituen 265. PSE-EE eta IU izan dira jeitsi diren bakarrak. EAJ, EA eta PPren gorakada nabarmena

izan bada ere, gorakada aipagarriena EHk izan du. Orain dela lau urte baino 70 boto gehiago jaso dituelarik.



75 eserlekuak horrela banatu dira.

GRUPO IFA Produkturik onenak, prezio onenean

ALDI

Tel: 76 80 98.

Andoni Bolinaga

METALAK

FS7 18

Tel - Fax 76 80 64 ELGETA


Maalan eskilarak egiteko proiektua aurrera

Eskilara hauek auditoriumerako sarrerarekin egingo dute bat

1.999ko maiatzerako Maalako eskilarak eginda egoteko, abenduan hasiko dira lanak, auditorium-eko lanekin batera. Abendurako lanak subastara aterako dira. Eskilarak eta auditorium-eko lehen lanak egiteko udaletxeak 32 milioiko aurrekontua izango du. Aurrekontu hauetatik 12 milioi izango dira harrizko eskilara berriak egin eta ingurua barrizteko. Eskilara hauek lehengoak zeuden lekuan jarriko dira, auditorium-eko sarrera printzipala izango inguruan.

Eskolan ere lanak hasiko dira

Eskola aurrean sortzen den potzua kentzeko neurriak hartu ditu udaletxeak. Horrela, potzua ez sortzeko goma batzuk jarriko dira. Eskoletako goiko 400 m. karratu pisuan lurra jartzeko asmoa dute.



Pisu hau aurrak erabiltzeko izango da. Hala ere udaletxeak beste erabilpen batzu eman nahi dizkio, adibidez erakusketak egiteko. Hori dela eta instalazio elektrikoa berezia jarri beharko da. Lan hauek hurrengo urte hasieran eginda egongo dira.

Haurrentzako ipuin lehiaketa

Azaroak 20aren aurretik aurkeztu beharko dira gabonak gaitzat dituzten ipuinak, ipuinaren luzera orrialde batekoa izan beharko da. 2. urtez jarraian, kultura batzordeak, haurrentzako ipuin lehiaketa antolatu du. Ipuin lehiaketa honetan Elgeta eta Angiozarko haurrek hartu dezakete parte.

Adinaren arabera 3 talde desberdinetan banatuko da lehiaketa. Lehenengo taldean Lehen Hezkuntzako 3-4 mailakoak arituko dira. bigarrenen, 5-6. mailakoak eta hirugarrenean berriz, Bergaran ikasten ari diren derrigorrezko 2.

hezkuntzako 1-2.mailakoak jardungo dute.

Lanak aurkezteko azken eguna azaroak 20 izango da. Ipuinak Elgetan ikasten ari diren haurrek eskolara eramango dituzte eta besteek aldiz udaletxera.

Lehiaketaren emaitzak Abenduaren 19an emango dira. Egun horretan, parte hartu dutenek, merienda izango dute Ozkarbin. Merienda eta gero, Gaztetxean jaialdi bat antolatuko da haurrentzat. Jaialdi horretan haurrek abes- teko eta dantzarako aukera izango dute.

Easo abesbatzaren erakustaldia

Urriaren 31an Easo Abesbatzak emanaldia eskainiko du elizan. Emanaldia haurrentzako meza ondoren izango da, gaueko 20:15etan hain zuzen ere. Easo abesbatza 1.995ean eratu zen, Gregorianoak kantatzen dituen taldea da. Gregorianoa otoitzean eta gozamen estetiko eta barneko bake giroa sortzean datza. Gregoriano musika emanaldia kultura sailak antolatu du.

Diapositibak eta zine emanaldiak Gaztetxean

Urriak 30ean, barikua gaueko 21:30etan "Titanic" filma eza- guna eskeiniko da Gaztetxean. Urriak 31an haurrentzat izango da zine emanaldia. Arratsaldeko 16:30etatik aurrera "Fluber" filmea eskeiniko da. Azaroak 13an, barikua gaueko 21:30etan Kubari buruzko diapositiba emanaldia egongo da Gaztetxean. Jabier Albisturrek eskainiko du ikusentzunezkoa.

Abizenen euskeratzea

Abizenak euskeratzeko kanpaina egin genuenetik denbora asko pasatu da. Baina iada azken pausua gelditzen da egiteko. Abizenak euskeratzeko apostua egin zenutenok martitzen goizetan 9:00etatik 13:00etara udaletxera. Bertan juzgauko lanak egiten dituen neskari "Jaiotze Agiri Literala" eskatu behar diozue. Ondoren dokumentu horrekin DNIA berritzera joan beharko zarete eta bertan egingo dizuete aldaketa. Elgetan jaioak ez zaretenak jaioterrian eskatu beharko duzue Jaiotze agiria.

INAKI JATETXEA

Leku paregabea, eguneko menua

Astelehenetik ostiralera zabalik goizeko 9:00etatik

OSTATU JATETXEA

Gudarien Bide
Tel: 76 80 23
ELGETA

Eguneko menua 800 pzta.
Karta.

Abiadura Haundiko Trena eta Deba Garaiko Mankomunitatea

Duela urte bete eman genizuen aditzera Goibekokaleko irakurleoi nola Madrileko Ministerio de Fomentoko teknikariak izan genituen Angiozarren ikerketa geoteknikoak egiten. Urte bete geroago emaitzok jakinean eta Eusko Jaurlaritzako proiektua zehaztuta azken alegazioak egiteko garaia heldu da.

Pasa den asteazkenean, urriak 28, Aretxabaletan egin zuen bileran erabaki zuen Mankomunitateak Angiozar Bailarak hainbat aldiz eskatu duen Epeleko alternatibaren aldeko jarrera. Bertan izan ziren Angiozar Bailarako Batzarra-

ren ordezkari bi azken lau hilanetan batu diren milaka firmak Mankomunitateko presidenteari ematen eta jarreraren berri ematen.

Orain itxoin egin behar da Gasteizko gobernuak zer erabakiko duen jakiteko eta, horretan, zer ikusi haundia edukiko du gobernu berriaren osaketak. Azken aldian, Garraio eta Herrilan sailburua aldatu zenetik eta Aman jauna jarri zenetik, Trenari buruzko jarrerak dexente aldatu dira, Euskal Herriaren beharrei erantzuna emateari garrantzi haundiagoa emanez eta ez hainbeste kanpoko garraio sarearen gune bihurtzei.

Datozen bost urtetarako plana egiten

Pasa den urriaren 22an Angiozar Bailarako Batzarrak lan bilera egin zuen datozen bost urtetarako lan plangintza zehazteko asmoarekin. Bilera honetan lan taldeak antolatu ziran hainbat arlo lantzeko: Azpiegiturak (bideak, komunikazioak, urak,...), Etxebizitzak, Nortasuna lantzekoa, etabar.

Datozen udal hauteskundeetarako txosten bat prestatzea da helburua, erabakiok bertan azalduz, Angiozarrek dituen beharrak

zehaztu, irtenbideak proposatu eta azkenik partidu politiko guztiei emango zaie bere programetan sar dezaten.

Lan talde hauetan edonork parte har dezake eta benetan ongi etorria izango da ideia berriak aportatu nahi duena. Dena den gogoratu nahi da Angiozar Bailarako Batzarrak hileko lehen martitzen egiten dituela bilera, gabeko bederatziretan, Saloian, eta edozeinentzat irekiak direla.

Frontoiko lanak

Laster baten berriz hastekoak direla diruri "Eskoriala" izena eman beharko zaion frontoiko lanok. Bost enpresa aurkeztu dira deialdi berrira eta urriaren bukeran hartu behar du erabakia Bergarako Udalak. Esa oraingotik "pelota" hotsa entzuteko moduan izaten geran "paleta" hotsaren orde.

Istripua

Beheko kalean egiten diharduten etxe berrirako grua ipintzen zebiltzala, grua jausi eta argi indarraren kableak apurtu zituen transformadoreen inguruan. Ondorioz etxe askotan 220 V izan beharrean 360V izan zuten golpetik, konektatuta zeuden hainbat elektragailu erre zirelarik. Dena dela inori ezer ez zitzaion gertatu, izan ere zerbait larria gertatzeko modua egon bait zen.

Azkunetako Jaiak

Aurtengo San Martinak azaroaren 7 ospatuko dituzte Azkunetan.

Hamabiterdietan meza.

Ondoren luntxa elizaurrean soinu-joleekin. Auzokoen eta bertarututako arteko solasaldia bukatuta bakoitzak bere etxera egingo du han jai giroari jarraia emateko.

Hotzez bide ertzean aurkitu zuen pobreaki soinean zerman kapa ematearren famatua egin zen Martin Tourskoak aurtenera ere Azkunetarreri bere kapa bota eta San Martinetako denbora onak lagun diezaiela.

Taberna Zaharra
jatetxea

Bazkari eta afariak tel: 76. 21. 21

Angiozar


Antonio Rodrigues Da Cruz

Galdaragintza arina
Hoditeria

IAPAM

Soldadura homologatuak
Erremitteritza

BERRIONDOKUA INDUSTRIALDEA, 8 - ELGETA
Tel: 76 81 01 Faxes: 78 90 14




Iñok be ez dau asmau!!!! Eta hurrengua???

Done Jakue bidia egitten ziharduan honek familixionek. Bai, Santiagora fateko asmua eken. Ez dakitt zelan ibili zian gure herrittik bueltan. Ez dogu uste Elgeta bide horren barruan dagonik. Hala ta be, Bide guztiak Erromara doiazen moduan, Elgetatik ziar be fan leike Done Jakuera.


Iñok be ez dau asmau zer zan. Erredakziñora ez da etorri kartaik behintzat. Hurrenguan izan biharko da.

Oinguan bi gauzatxo asmatzeko. Errezena da behekaldeko erretratua zer dan jakitzia. Baiña nun dago? Ze auzunatan egon gara hau erretratuau etartzeko?

Erantzuna jakin ezkeru badakixu. Betiko lekuan gare, Salbador kalian 2. zenbakixan, Kultur Etxian.



Zer pentsatzen jatzu pasauko dala hauteskundien ostian?



Manolo Montiel
Bikargiña (32 urte)

Pentsatzen dot lehenguan jarraituko dogula, bakia lortzeko lehenengo armak laga egin biharko dira ta gero negoziatzen hasi, hala ta be langilia danak lana egin biharko dau ta langilia ez danak ba ...

Pakia lortzeko bidia zabalduko dala pentsatzen jata, hauteskundien emaitzak onak izan dira ta.

Rosario Egea
Jubilatua (82 urte)



Gauzak lehengo antzera geldittuko dia. Danak batuko balitzaz ta akordio batera heldu biharbada bakia lortuko litzake, baiña ikusi egin bihar...



Patsi Añantzabal
Jubilatua (70 urte)

Pentsatzen dot pakian bidia zabalduko dala, baiña horretarako Euskal Herriko alderdi politiko guztiak alkartu egin biharko litzakez, hori izango litzake Euskadin pakia lortzeko oiñ momenuan dagon aukeria.



Ainhoa Llanas
Jubilatua (21 urte)

Ez dot uste aldaketa haundirik egongo danik. Gauzak lehengo antzera jarraituko dabela pentsatzen dot. Egoeria pixkat aldatu da, bake bidiai aukeria zabaldu jako, baiña oiñ, hauteskunderak pasau diala, ikusi bihar da zer egitten daben.

Pentsatzen dot bakia behintzat etorriko dala. Ahal dan bestian danak alkartuko balitzaz bakia lortzeko aukera bat egongo litzake.

Ignacio Gillegi
Bikargiña (57 urte)



Marga Astorgarai
Bikargiña (83 urte)



ELKORO TORLOJU LANTEGIA
DEKOLETAIA ETA FIJAZIO SISTEMAK
Berraondokua 2/g 20690 Elgeta
P.K. 256 - 20600 Eibar (Gipuzkoa)
Tel: 943 768200 - 768125 Faxa: 768203

EROSLE
M. Asun Agirre
Salbador 26. Tel: 768190

Kartetan jokatzeko giro egokia
Tel: 768093

Patxi Taberna

Tel: 76 81 31
M^a Jesus Arrazola
VIVO
Janari Jendenda

A
L
E
A
P
A
7
N
D
E
G
7
A

M^a ESTHER
Tel: 76 81 67

Aries: "Akerrak adarrak okerrak ditu", ezagutzen dok/don esaeria? Eta ezagutzen dok/don esan gura dabena? Ba hoixe, okerrak dittuela.

Taurus: Aurreko aste azkenian larregi gastau eban/honan eta oiñ ez dakak/dakan diruik. Lasai, alegiñdu kinieliakin.

Gemini: Noiz edo noiz dieta pixkat egittia ez jaok/jaon txarto. Azken boladan jan dittuan/dittunan txokolate danak toki berian pegau jatazak/jatanaz.

Cancer: Asteko seiñu onena haiz Cancer! Aprobetxau bihar dan moduan aste azkena, bestela badakik/badakin abatetxe edo monjaetxe bidia hartu.

Leo: Etxian entzuten duan/donan horrek musikiorrek ez dua/dona bape onik egitten. Hasi hadi kalera urten eta haize piskat hartzen.

Virgo: "Ez dut ligatzen" esanda gauzak konpontzen dittuk/dittun ala? Badok/badon zeoze egitteko sasoia. Hala ba, hasi ipurdixa mobitzen!!

Libra: Libra izatiak ez jok/jon esan gura egun guztia pisuan gañian egon biharra dakakenik/dakananik. Gizena ikuste bahabe, ez dok/don hire arazua bestiena baño.

Scorpius: Noixian behin aldizkariko beste zatixak irakurtziak ez dua/dona kalteik egiñgo. Bajakixau/bajakiñau hire geruak asko arduratzen habela, baiña horrait-xiok...

Sagitarius: Cancer seiñukuak zurekin ligatzeko asmotan dabiz, badakik/badakin heuron aste ona dakela, orduan kontuz, buruan daken dana lortzen juek/jone ta.

Capricornius: Zer dala ta holako malkuak? Badakik/badakin ta esandakuak ez dittuk/dittun sekula serixotan izaten da.

Aquarius: Eskolara edo lanera bueltatzia gogorra egiñ jatzula! Ta ze uste dok/don ba, bestiok larrosia moduko freskuriakin hasten gala?

Piscis: Udazkena aillegau dala ta arduratan? Trankil, hiri behintzat ez jak/jan depresioik etorriko ta.

Jokin Arantzabal Ikaslia (16 urte)

Zertan diharduzu? Ikasten eta ondiokan ikasten segidu biharko dot.

Elgetan euki dozun andereñoik gostokuena? Izaskun.

Juegarako egun berezi bat? Edozein zapatu.

Elgeta kenduta, nun biziko ziñake? Ez dakitt, ni Elgetan biziko nintzake.

Noiz atakau zontzan azkenengo aldiz neska bati? Bukaera ona euki eban? Gutxi gora-behera oin dala hilabete bat eta bukaera dexentia euki eban.

Zenbat aldiz kentzen dozu bizarra astian? Bizarra dakat ala? Astian behin.

Zapatak ala zapatillak nahixau? Zapatillak.

Zein miresten dozu? Iñoibez.

Berriz errepi-katzia gus-

tauko jatzun amets bat? Bat ere ez, normalian txarrak eukitzen ditut.

Erromantikua zara? Bai.

"Txuleta" zalia zara? Bai.

Zer euki bihar dau neska batek zure gustokua izateko? Guapia eta sinpatikia.

Sekula sartu dotzue hankartetik golik? Bai.

Zinian ikusi dozun azkenengo pelikulia? Titanic.

Ze hiru gauza eruango ziñukez irla bakarti batera? Neskia, jateko zeoze ta ohia.

Zenbat bidar jausi jatzu katua balkoitik? Bost aldiz ta ondiok bizik segitzen dau.

Sekula erregalau dotzazu loraik neska bati? Ez.

Zelan ikusten dozu zure burua hemendik 15 bat urtera? Soltero ta ahal bada lanian.



Berezitasuna:
Buztana.
Pintxo gozoak
otartekoak.

BOLATOKI
TABERNA-JATETXEA

tel: 768284

Goio Sarasua

Igeltzeritza lanak

Teilatuak

Sukaldeak

Etxaurreak

Komunak

Otzango Behekoa Baserrria. Tel: 860156

Basurdetia

Basur-
d a t a r a
fateko sasoia
da ointxe.

Bixente Burdiñas asko-
tan fandakua da. Berakin
ikasi doguz holako ani-
malixak harrapatzeko

de inguruan ibiltzen
giñan gehixenbat. Am-
rratzen egoten naiz fate-
ko".

Lehenengo, Kan-
pazarren, danak juntat-
zen dira, "batzuk arras-
tuan billa, beste batzuk

Orduan kalte haundixak
egitten zittuen basurdak:
zolueta dana apurtu,
artua birrinddu ta... hori
triskantzioi ikusitta abi-
xau zozkuen guri. Hala-
xe, 4 basurda akabau
giñuzen. Hurrengo
urtian, guri biharrian,
Aramaixokuei deittu
zotzen eta ez zeben
bat bera be akabau.

zozkun bere ehizatari
denboran hiru basurda
akabautakua dala.

Basurdiak bilddurra dot-
za bi hanka-
kuai



egiñ biharrekuak ta hil
ostian zelan jokatu.
Eurak dozenatik hogeira
lagun faten ziran basur-
datara. "Aspaldixuan ni
neu ez naiz fan baiña fal-
tan botatzen dot egitten
giñuan hamarretakua ta
zeguan lagun girua.
Besai-

Besaidera, ta hamarrak
hamar ta erdiak ingu-
ruan, Kanpazarren batzen
gara danok. Arrastua
topau ta haraxe faten da
gero. Txakurrak laguntza
haundixa dira. Hiru era-
biltzen doguz".


Iñoiz deittu izan
dozkue kanpotik basur-
dak akabatzen fateko be.
Elgetako kuadrillia hala-
xe fan zan behin
Arrasateko Uda-
letxiak eskatuta.
Hori eskaerioi egiñ
zozkuela izango dira
bost bat urte edo.

30 urte basur- datan

30 urte baiño
gehixau dabil
Burdiñas basurda-
tan ta ezin esan
parajia ezagutzen
ez dabenik, berak
esaten daben
moduan "hamaika
lelo-ibilli" egind-
akua da bera, bai-
ña ez daka bape
damuik.

Ondo akor-
datzen da behin zelan
Besaideko monumentua
baiño aurrerau dagon
tontorran barrenian ze
pasau jakon, "zazpi! Ez bi
ta ez hiru, zazpi agertu
jatazen batera ta ezin
tiroik egiñ". Hala ta be
basurda batzuk akabaut-
akua da. Ehiztariek, aka-
batzen daben baino pieza
gehixau joten dittuela
esaten ei dabe beti be, bai-
ña Burdiñasek serixo esan

"Basur-
dia ez da
gizonagana faten, zulon
baten edo badago akaso,
baina librian, nora-nora
egitten dau basurdiak,
ospa egittera beti be. Bis-
tia ez ei dake ona, baiña
belarrixak edo surra bai,
ze, basurdia hanka bikua-
gana ez da arrimatzen.
Horregaittik egon bihar
da arbolan baten onduan



F . O

Kalitate kontrola

Piezei azken ukituak

Tel: 76 80 38

salbado
19
behea

**IBAIBA-
RRIAGA**

GARRAIOAK

Tel: 768072

Salbador zeharbidea 2

ELGETA

**E
HARATEGIA
A
S
T**

San Roke 6
tel: 768168.

Goibekokale 39.zk

gogorra da

edo, geldi, lorituen moduan. Basurdia konturatu ezker bi hankakon bat zain dagola ez da sekula santan arrimauko. Eurixa ta hotzai ez jako bilddurrik euki bihar. Ez bokadillo ta ez trago, atento intxoin, dia-

rra



Hotza, edurra, txingorra, eurixa, ezer ez da aitzakia zure lekua lagatzeko, ta horretarako be ohittuta egon bihar dala esan dozku burdiñasek. "Txakurrekin doianak ibili haundixak egitten dittu baiña oso politta da, zuentzako modukua".

Basurdia akabau ta gero, "potruak kendu"

Koskabilluak kentzia da lehenengo biharra. "Beti eruan bihar da kutxillua eskura ta usaiña egiñ ez daixen potruak mozten jakoz." Gerokak dira narrua kentzia tripak ta ostien guak. "Tripak mendixan kentzen jakoz, baiña ojo! lehenengo koskabilluak. Lehen, narrua, milla pezeta inguru pagatzen zeben. Oiñ, pezetaik bez".

Basurdia jateko edarra da, batzuk diñue astuna dala, baiña nik lo trankill egitten dot hirulau platerkara jan arren.

Geruau ta basurda gutxiu

"Basurdak asko egoten

dira ezkur urtia danian. Bestela obispuen moduan: Bakotxa punta baten, bata Gasteizen, bestia Bilbon ta hirugarrena Donostian. Lehen basurda gehixau zeguan, basurdia zikiñ artian ibiltzen da ta oiñ piñua ta abarra badago, baiña jana gutxiu. Sebastian Zaba-



leta zaharrak hobeto jakingo dau baiña, 200 buru inguru akabauko giñuzen honezkero".

Geruau ta ehiztari gutxiu


Oiñ gazte gutxi dabil basurdatan, juergia gehixau gustatzen jakue. Eskupetak be laster egittiai lagako dotze. Lehen libertade gehixau zeguan, lizentzia etaratzia be errezagua zan. Oiñ esamiña be eskatzen dabe. Lehen etaratako baimena betirako zan, ta oiñ dana



dirua batzia da, mediku, papela, lizentzia...

Basurdetia txistua jota akabatzen da

Basurdatako eguna txistua jota akabatzen da. Danei abisatzen jakue ta danok etxera. "Kornetia joten da hiru bidar ta danok kotxe ondora faten gara. Ni behin lagan induen basuan ahaztuta, ta hori iñoi be ez dotzat desio". Askotan gogorra da basurdetia, izan be, negua izaten da ta hotz haundixa egoten da. Hala ta be, "merezidau ta bateronbatek ikastia gura baleu etorri deilla egunen baten".



entzun arte."

Guri be luzatu dozku gonbittia basurdatarateko. Guretzako aproposagua izango ei da txakurrekin doianakin fatia arbola baten basurdian zaiñ gotia baiño.

ZABALA

Lasao 6 Elgeta
Tel: 768075-6 768225
Faxa: 768201



HERMANOS S.A.

EHIZARAKO ESKOPETA EGILEA

Guk be botatzia gura dogu !

Urrixan 25ian, 18 urtetik gorakuek botatzeko aukeria izan dabe. Baina, zer pentsatzen dabe etxeko txikixenek?

Goibekokalek txikixenen iritzia batu gura izan dau hemen orrialdiotan. Bertan, gusto guttiko erantzunak. Zetarako faten dan jentia esan dozkie, zer egiten deben danak sobre batekin, zer daroien sobre barruan...

Gerora, botuan emoten dan lekura fan gara eurekin, ta barruan, zer egitten dan ikusi ta gero, bigarren galderia hauxe izan da: Oin ikusi dozuela: zer egitten da hor barruan?

Maitane Montiel 11 urte

1-Udaletxera jentia auskalo zertara etortzen dan. Bilera bat egittera etortzen dira. Bilera egittera alkatiakin. Argazkixak ikustera etorri dira. Herrixan argazkixak ikustera.

Alkatiai dirua ekartzera etortzen dira sobriakin.

2- Botau egitten da, presidentia aukeratzeko, Euskal Herrikua.

3- Hor barruan jentia dago. Gela batera sartzen da jentia, ta bere izena emoten dau, ta beste gizon batek botatzen dau ontzira hori sobrioi.

Julen Olaortua 9 urte

1-Jentia dirua sartzera etortzen da. Jaialdi bat egittekotortzen da.

Ni seguru nago sobrian dirua ekartzen debela. Kartila baten sartzan dabe dirua, ta gero, kaxa baten. Sobrian barruan karta bat be badago. "Kaixo alkate" ipintzen dabena.

Holako kartak pillo bat etorri dira nere etxera ta danak fan dira zakarrontzira.

2- Nik ondiokan ez dakitt zetarako botatzen dan.



Xabier 10 urte

1 Botatzera faten da jentia Udaletxera

2- EHei PPei eta holakuei botatzeko. España ta Euskal Herrixa burruka baten moduan dare, ta Euskal Herrixai botatzen dotze ez hartzeko España bezela. Guk ez dogu botatzen gure aitak botatzen dabelako.

3-Barruan dagon jentian artian, horko pertsonak esaten dabe zenbagarren pertsonia etorri dan botatzera.

Leire

Etxebarria 10 urte

1-Jentia alkatiakin berba egittera etortzen da, ta beste batzura Udaletxera, ta Jaixak prestatzera be etortzen da jentia. Erakusketa bat ikustera be etorri da jentia, ta egurrezko aparatu batzuk ikustera. Sobre barruan dirua dago, gero adibidez alkatiak abadiak dirua eskatu ta berai emoteko,

2- Botau egiten da, adibidez alkatiak alde egoten bazara botau egiten duzu. Presoak soltatzeko botatzen dau jentia.

Guk ez dugu botatzen txikixak gazelako.

3 Hor barruan jentia dago, apuntatzeko, ta sobria kajara botatzeko.

HAIZEA

TABERNA



giro atsegina
lagunartean
egoteko.

Tel: 768256



Jesús Mari Montiel
ITURGINTZA
ETA BEROGAILUAK

Artekale 3.

Mo: 970773950 Eibar Tel: 700719

KONPONKETAK SUKALDE
ETA BAINUGELETAN

DONUTSAK
Sukaldariak: Araitz eta Garazi Oianguren
Patxi Taberna



NOLA PRESTATU:

Hasteko, ontzi batean arraultzak irabiatu eta azukarra gehitu. Nahasketara gurina bota eta eragin urtu arte. Ondoren, legamia eta anisa gehitu.


Azkenik, poliki-poliki, uruna botatzen joan ore sendo-sendoa lortzeko. Lehorra gelditzen dela ikusiz gero, esnea gehitu eta ondo eragin.

Frijigailua ondo berotuta dagoenean, donutsak bota. Lehenengo alde batera eta gero beste aldera ondo egin daitezen.

Eginda daudenean, azukarra gaintetik bota eta jateko prest egongo dira.

OSAGAIK:

- 3 arraultza
- 5 koilarakada legamia
- 650gr. uruna
- Taza eta erdi esnea
- 70gr. gurina
- 260gr. azukarra
- 10 ttanttana anisa



GOMENDIOAK:

- Donutsak frijitzean ondo zaindu beharra dago, bestela, lehortu eta gogortu egiten dira.
- Anis ttanttanak bakoitzak bere gustuaren arabera gehitu.
- Orea egiterakoan, eskuekin ondo nahastea ezinbestekoa da oreak gorputza hartzeko.
- Frijigailuaren orde, zartagina ere erabili daiteke.

Estetika eta Masaia



MAITE CEBRIAN

Andra Mari Plaza, 1 Komentu Kalea, 12 - 1
 Tel: 943 76 82 72 Elgeta Tel: 94 681 63 75 Durango



Elorrio bide z/g 20690 Elgeta
 Tel: 768050-789031 Faxe: 768243

TAPEM, S.A.

Trokelak eta estanzazioa
TROKEL PROGRESIBOETAN ESPEZIALDUAK

Bittor eta Jabier, hamar urte saskitik saskira

Jabier Larrañagak eta Bittor Gallastegik hamar urte daramatzate saskibaloian jokatzeko. Hasi-eran, Elgetakoak taldean jokatu zuten baina azken urte hauetan talde honen desagerpenaren ondorioz, Estampaciones Elgetan aritu dira. Aurretik, pasadan denboraldian lortutako Liga eta kopako txapelak birlortzen saiatuko dira. Bi beteterano hauek, zahar-rrak ez, oraingoz ez dute saskibaloia usteko asmo-rik.

-Zenbat urte sakibaloian jokatzeko?

Bittor Gallastegi: Hamar urte daramagu.

-Noiz arte?

Jabier Larrañaga: Ekipoa dagoen bitartean jokatzeko jarraitzeko asmoa dugu. Jendea jokatzeko prest badago guk taldean jarraituko dugu.

-Nola hasi zinetan kirol hau jokatzera?

B.G.: Kasualitatez izan zen. Joxean eta bere kuadrilakoak bazeramatzaten hiru bat urte jokatzeko, Luis nire koñatua barne zela. Horrela, duela hamar urte jokatzeko prest egongo ginatkeen esan ziguten eta horrela hasi ginen.

-Zuen instituto garaian saskibaloia izan zuen "boom"ak zerikusirik izan al zuen?

J.L.: Ez dut uste. Nire kasuan behintzat afizioa "boom"-a eman

aurretikoa zen. 14 edo 15 urterekin telebistan partiduak ikusten hasi nintzen eta hortik datorkit zaletasuna.

-Eibarko garaian hainbeste aldiz bigarren eta hirugarren postuak lortu ondoren bazen garaia txapela lortzeko.

J.L.: Bai. Dena den, egia esan, Elgetakoak taldearekin lortu genuen bigarren postuak meritu handikoak izaten ziren. Batez ere urte batean oso larri ibili ginen jende aldetik eta lortutako azpitxapelketak meritu handia izan zuen guretzat.

-Aurretik zein helburu dituzue?

B.G.: Ez dago helburu zehatzik. Gure helburu bakarra partiduak jokatu eta ahalik eta gutxi ibiltzea da.

-Eibarko txapelketaz aparte jokatu al duzue beste inon?

J.L.: Bai. Aramai-xoko txapelketan behin hartu dugu parte eta irabazi egin genuen. Horretaz gain Bergaran ere jokatuak gara.

-Lehen elgetakoak taldean jokatzeko zenuten. Orain berriz "Estampa"n. Alde handia nabaritu al duzue talde berritan?

J.L.: Ez dago alde handirik. Joko aldetik behar bada "Estampa"n kalitate handiagoa aurkitu dugu. Elgetakoak Joxean genun erreferentzianagusia. Giro aldetik



Jabier eta Bittor jokatu izan duten bi taldeetako kamisetekin.

berriz, ez dago alde handirik. Behar bada nagusiekin afari gehiago egiten genituen.

-Elgetan ez dago saskibaloirako zaletasunik. Zer egin behar da kirol hau indartzeko?

B.G.: Ez da lan erraza gaur egungo gazte gehienek futbola dutelako oinarri.

-Duela gutxi Udaletxeko eskutitz bat jaso duzue pasadan urtean lortutako

garaipenei errekonozimendu bezala oroigarri bat jasotzeko prest egongo al zineten. Pozik egongo zarete!

B.G.: Nik nahiago nuke oroigarria jaso baino beste mota batetako laguntza emango baligute, hala nola, polikiroldegirako sarrera ordainduz edota txapelketako matrikula ordainduko baligute.

J.L.: Ni behintzat ez naiz joango oroigarri hori jasotzera.

Saskibaloia: lehenengo bi partiduetan garaipena eta porrota

Ez zen oso ongi hasi 98/99 denboraldia Estampaciones Elgetarentzat. Estreineko partida 48 eta 47ko emaitzaz galdu zuen pasadan urteko azpitxapeldunaren, Vicky Leytonen aurka. Dena den, porrot honek ez du aurreko urteetan izan zezakeen garrantzi bera, denboraldi honetan lehiaketa sistema aldatu egin baita. Orain arte, denboraldiko partida guztiak hartzen ziren kontutan, garaipen gehien lortzen zituena izaten zelarik txapelduna. Aurten berriz, bi taldetan daude banaturik, pasadan urteko zazpi onenak alde batetik eta azken postuan geratu zirenak bestetik. Horrela bada, lehenengo fase honetan bost aurrenekoen artean sailkatzea da helburua, bigarren fasean txapelketa irabazteko aukera izango dutenen taldean jokatzeko aukera izateko. Horrela gertatzen ez bada maila galdu eta "bigarren" mailako txapelketa jokatu beharko dute.

Txapelketako bigarren partidari elgetarrak erraz gailendu zituzaien Bar Torres Amañakoei 64 eta 30ko emaitzaz.



Gorkak ez zuen txapelketako bigarren partidua jokatzetik izan.



Askasibarrek Born Jayn jarraituko du

Azken uneko aldeketarik egoten ez bada, Oskar Askasibarrek, beste urtebetez jarraituko du Born taldean. Azken hilabeteetan surrumuru ugari zabaldu da bere etorkizunari buruz, Vitalicio Seguros bere atzetik ibili izan den, Portugalen sortu den talde profesionalera joango ote zen... baita txirrindularitza utziko zuenaren surrumuruak ere zabaldu dira.

Aurretik aipatu bezala, beste talde afizionatu batzuen eskaintzak izan dituen arren, eta azken uneko berririk ezean, datorren urtean Euskal Herriko errepideetan izango dugu Oskar, Born Jay taldearen koloreak defendatzen.

IRAMA

Instalazioak eta mantentze lanak

24 orduko zerbitzua
mensatel: 900282828
abonatua: 247262
tel: 789057-768025



ANA LIBURUDENDA

Zatoz beste dimentsio batetara!

Tel: 768078

ERREKALDIA

Ermita: San Kristobal

Jaia: Uztailearen 10ean

San Kristobal egunaren bezperan edo bezperaurrekoan hasten dira jai antzean pinua jasotzearekin. Hau iluntzean egiten da eta ondoren auzoko gazteek txokolate jana egiten dute.

Normalean bi edo hiru egunetan izaten da erromeria, horietatik San Kristobal eguneko auto bedeinkaziñoa delarik ekintzarik famatuena (kotxeak lorez adornatuta bide baztarrean egoten dira parkatuta eta abadeak banan-banan bedeinkatzen ditu). Dantzaldiak gaez izaten dira eta San Ferminetara joan ez direnen topaleku.

Gainera martxoko egun baten meza ospatzen dute auzokoen alde (Hermandadeko Meza) eta beste meza bat maiatzak batean.

Auzotarren bat hiltzen denean bederatziruureko meza ere bertan ospatzen da.

Baserriak eta etxeak:

- Loidi Etxebarri
- Loidi
- Loidi Bolu
- Loidi Bolu berria
- Askasibar
- Askasibar Bolu
- Askasibar Bolu berria
- Belastegirena
- Meltxorrena (Unamuno Berri)

- Aldai Etxebarri
- Aldai Gaiñekua
- Aldai Aurrekua
- Aitzol
- Gaztelu
- Aldai Azpikua
- San Kristobal
- Elhone (Elkoro Berezibar)
- Bitzibar (Berezibar Erdikua)
- Bitzibar Barrena (Berezibar

- Barrena)
- Edui (Eduegi)
- Amuskibar
- Amuskibar Bolu
- Gaittao Aldekua (Garitano A.)
- Gaittao Gainekua (Garitano G.)
- Gaittao Erdikua (Garitano Markezkoa)
- Gaittao Barrena (Garitano B.)
- Osingain

Askasibar

Jauregi itxurako etxea, dorretxe indartsu itxura gordetzen du bere oin karratuan. Erreka ertzean egoteak altura haundia egiten dio eta itxura dotoretu. Bergarara doan bidetik ikustera ohituta gaudenontzat etxe haundia dirudi, nahiz eta beste hainbat baserri etxeren barruko banaketa gorde. Izan ere Askasibar baserria ez da bi pisukoa bere zabalera guztian, aldapari egokituta egonik behe-rengo upategia du, erreka ertzean, etxearen erdia hartzen duelarik; honen gainean eta luraren gainean, ankalatraba, pisu nagusia, sukalde, logela eta abarrekin eta gorago sabaia, hona ere zuzenean sar daitekeelarik mendiarren aldatza aprobetxatuz.

Askasibar etxeak, hurbil duen Loidik bezala, bere errota izan zuen garai baten, Askasibar bolu, Loidi bolu inguruan



Askasibar baserria eta bere ibarra.

zuen presa eta Askasibarren etxazpitik pasatzen zen kanala. Oraindik ere arrastoa ikus daiteke.

Bailarako beste hainbat etxeren antzera etxe hau ere euskal abizen

baten jatorria da. Askasibartarrak gaur egun ere ugari xamar dira angiozartar eta elgetarren artean. Jatorrizko etxean abizena galtuta badago ere Azkunetako Migelenan

laurehun urtetan eduki du segida Migel Askasibarrek bertara eraman zuen apelidoak.

Baserri bizimodurik ez du azken urteetan Askasibarrek, poliki-poliki usten

joan delarik. Gaur egun Gorrotxategi bizi da bertan.

Mozolotegi

Askasibar bolu eta Eduegi baserrien artean zegoen kokatuta etxe hau, Elgeta-Bergara muga egiten zuen izen bereko errekatxo pasatuta aspaldiko errecondoko bidetik hurbil. Mende honen hasieran hustu eta bertan behera etorri zen.

Hustearren arrazoia etxearen izena bera izango ote zen ere komentatu digute, itxura eskaxa egiten zuela eta Mozolotegikoa izatea, burlarako besterik ez zuela balio eta.

Diotenez, etxe honetakoa zen jatorriz orain Bergarako Pazkuei hasiera emateko Seminariotik Udaletzera jeisten duten Bitorianatxo, emakume emakume jatorra, alaia (eta xurrut zalea nonbait).


Eduegi

Baialara osoko etxerik dotore eta osoenatarikoa da Eduegi. Bere egituran mendeetan zehar eduki duen zeregin, haunditze eta egokitzeen arrastoa gelditu zaio. Hiru arku-dun baserria, aurrekalde barrokoa du, iparraldera begira dituen gelekina batera XVII-XVIII mendeetan eraikiak. Atzekaldeketik begiratuz, oraindik nabari da ertaro bukaeran eraikitako etxeak zein tamaina zeukan: apur bat txikiagoa, aldapan goratxoago egokituta, oraindik garai haietako leihotxo gotikoa du.

Barruko egituran garai bateko dolararen arrastoak daude, etxearen zurezko egitura bat egin da zegoelarik dolararen



Eduegi baserriaren etxaurrea. Etxeraren solairu desberdinetarako sarrerak antzeman daitezke: Upategia, sarre-ra nagusia eta ataria, sabairako sarrera.



Eduegitarren armarria.



Ertaroko zatian leihotxo.

prentsako ardatzarekin, pisua egiten zuen harria tornilo haundi batetik zintzilikatuz eta palanka eginez pretsatuz sagarra. Etxearen azpikaldean dago gaur egun ere upategia.

Bestela Askasibarrekin duen banaketa berdina du, aldapa aprobetxatuz etxeke solairu guztietara heldu ahal izateko.

Angiozar Bailaraen sarreraren leku estrategikoan dago eginda, beste edozein lekutatik ezkutu dagoen Amuskibarriko ibarra dominatzen baita bertatik. Loidirekin batera auzoan armarria duen etxe bakarra da, baina Eduegirena ondo bistan ezarrita dago, azpian etxekeko jatorri noblea adieraziz: "ARMAS DE ESTA CASSA SOLAR DE EDUEGUI Y ES DE BINCULO Y MAYORAZGO". Benetan armarri bikaina da, oso ondo egina, finezia haundikoa, artelan oparoa.

Etxearen arkuetariko bata itxita dago gaur egun, bertan sukaldea egina dutelarik. Etxea asko dotoretuko luke arku hori libratzeak, edo besterik ez bada fatxada osoa zeharkatzen dion tximenea tuboa kentzeak.

Azken mende morderdian Garitano abizenak dirau Eduegi etxean, etxean jatorria duen abizena azpalditxo atzera gelditu zelarik apelidoen ordenan.

Etxe honen etorkizuna zeharo kolokan dago Abiadura Haundiko Trena dela eta. Tren hau egitekotan trenbidea bertatik pasatu eta etxea bota egin beharko litzateke. Espero dugu mendeetan iraun duen bitxiak halako paraderorik ez edukitzea.

VOTA K



Neretzako, emaitzak biharrian trenak dauka inportantzia haundixaua oiñ. Trenak osoik jarraitzen badau, ondo; bagoin bat galtzen badau, se jodio!

Etorkizunerako hain garrantzitsuak zian eleziñuak amaittu die, eta hemendik aurrerakua ikusi bihar. Emaitzen gaiñian gerotxuau bi edo hiru gauza; aurretik, beste hainbeste.

Eleziñuetarako kanpaiñetan badia alperrekuak edo neretzako behintzat balio asko ez dauken gauzak, esaterako, mitiñak ta erreflexio eguna. Lehenau, telebisiñoik, ta radixorik ez zaonian, ta jende askok leitzen ez zekinian, jentiai pograma politiko, edo idea batzuk jakinarazteko bide bakarra mitiña zan. Oiñ egunero politikoei entzuten aspertuta baiño gehixau nazkatuta garenian, bide asko dare jentiai pogramak azaltzeko, baina pograma gutxi ta zarata asko. Zein faten da, ba, norberan alderdiak ez dian mitiñak entzutera? Ta, alde aurretik

jakinda zeñi emon bihar jakon botua, aguantau eiñ bihar da gero ordu ta pikuko mitiña, behin ta berriz entzundako gauzak hamaikagarren aldiz entzuteko.

Erreflexio egunak be zeozetarako balio badau, egun bat hainbeste tontokerixa entzun barik pasatzeko da. Ta eskertzen dogu. Bestela, zetarako balio dau ba? Erreflexionatzeko ez, behintzat. Batzuk bizi osuan ez dabe erreflexionau ta egun baten dana egittia be, lartxo eskatzia izango da. Ta, danok, hori egunoi erreflexionatzeko erabiliko bagiñu, igual emaitzak be bestelakuak izango litzalez. Absentziñua, behintzat, gehitxuko litzake, ta politikia egitteko modua be

ballitteke.

Bueno ba, euskaldunok aukeratu dogu lehendakarixa. Zeiñ izango dan ez dago duda handirik. Oiñ berak aukeratu biharko dittu gobernatzeko lagunak. Ta lagunok bi lekutan bilau biharko dittu: Ermuan edo Lizarran. Edo, balitteke Vitorixa erdi bidian dagolako-edo, bixetan? — Portzierto, Ermuan izan dabe aukeria nazionalista espainolak ta ez nazionalistak (halaxe esaten da, ez?) lehendakarixa aukeratzeko; Lizarran berriz nazionalistak ta ez nazionalistak (hola hobeto ulertzen da?) ez dabe aukeraik izan.

Bestela zer, ba herri txiki eta ez hain txikitetan arazorik ez EAJ eta EHrentzako. Herri

haundi eta kapitaletan PP eta PSE ondo, eroso. PP nausi Donostian (edo San Sebastianen?), bigarren Bilbon ta nausi Vitorixan (eta, holan, Araba osuan). Ta, gainera, bigarren hiru probintzietan. Preparauta egon, hori izango da-ta hemendik aurrera behin ta berriro entzungo doguna Espainiako telebisiño, radixo ta periodikuetan. Hori erabiliko dabe haiñ famaua egiñ dan Lizarrako trena gelditzeko. Saia-tuko dia trena deskarri-latzen, ia bagoiren bat edo beste galtzen daben, eta geldittu ez bada egitten be, belozidadia galdu eraiñ, ta balio haundirik barik laga.

Emaitzak, beste-lak? Bakoitzak esan biharko dau. Neretzako emaitzak baiño trenak daka inportantzia haundixaua oiñ. Trenak osoik jarraitzen badau, ondo; bagoin bat galtzen badau, se jodio!

Datorrena datorrela, bittartian gora PGB, KRAC eta KRT.

Enrike Gorrotxategi

Eleziñuetarako kanpaiñetan badia alperrekuak edo neretzako behintzat balio asko ez daken gauzak, esaterako, mitiñak ta erreflexio eguna.

Hozkailuak eta izozkailuak aire giro-tua.


Salbador 21
Berraondokua 7
Tel eta faxa: 78 90 46



Larunbatetan eta igandeetan bertako babarrunak, saiheskia erreta.



tel: 768273



**KONTXI
ARRANDEGIA**
Salbador 5 Tel: 768009



Erretratua: Rosario Galdos

Kataian

1936ko apirillan 19xan etaratakua da hau erretratuau. Batzuk, ondo preparauta dare erretratua etaratzeko. Gizonezkuak oso elegante dare, ta emakumezkuen itxuria be ez da gutxiaurakua. Ondo begiratu ezkeru, konturatuko zarie zelan emakumezko bi abarka-galtzekin daren. Orduko moda kontua ete zan?

Erretratukuen izenak:

Goixan eskumatik ezkerre: **Puri Galdos, Rosario Galdos, M^a Luisa Txanboli, Mertxe Txanboli, M^a Luisa Errementerikua ta Eusebi Galdos.**

Beheko aldian: **Isidrin (Ireneo txaletekuan anaia), Jose Luis Palla (Bilbokua) ta Fernando Beistegi.**

Oh.: Erretratu zaharrak izango dira zure etxeko txokon baten gordeta. Guk gustora jasoko giñuke holakoik izan ezkeru. Hala balitza, bialdu Goibekokale aldizkarira.

Elgetako EAJ/PNV-ek
eskerrak eman nahi
dizkizue zuen
konfidantzagatik



Goibekokale
aldizkariko loteria
salgai

21.528 zenbakia

Taberna eta
dendetan daukazu.
Ez galdu aukera.

